

XXI.eko gosearen mekanismoak eta onuradunak

Burbuilaka funtzionatzen du kapitalismoak. Puntu-com burbuila zapartatu zenean, etxegintzarena puztu zen. Hura hertu delarik, lehengaiena hazten ari. Elikagaien hilabeteotako krisia honekin dago lotuta, baina baita urteotan nekazaritzan multinazionalak hartu duten nagusitasunarekin ere.

ELIKAGIAK PLANETA OSOAN garestitu dira denbora laburrean, denetan eta izugarri. Janari eske matxinadak lehertu dira Haitin bezala Yemenen, prezioen gorakadagatik karrikak sutu dira Mexikon eta Egipton. Bat-batean, komunikabide nagusietan hasi dira aipatzen duela gutxi arte ekologisten edo altermundialisten gaia zena: mende berriko arazo nagusienetakoa izango dela herri-tarrek elikadura segurtatzea.

Oinarrizko elikagaiak karioago ego-tearen errudun jo dituzte klimaren aldaketa, petrolioaren prezio altuak, dollarraren ahuldadea, bioerregaien ugaltzea, eta baita India eta Txinan herriarrek gero eta okela gehiago kontsumitzea ere. Egiazko aldaketak denak. Baina zenbait idazlek azpimarratu dute honako hau: azken hamarkadotan ekonomiaren gainerako alorretan bezala nekazaritzan ere nagusitu den araugabetze edo desregulazioa. Idazleotakoa da Gretchen Gordon, Food First (Garrantzitsuena Janaria) elikaduraren eta garapenaren aldeko mugimenduko kidea, *World War 4 Report* gunean “Elikadura krisiaren atzean dagoena” artikulua idatzi duena.

“Esandako faktore horiek guztiak –idatzi du Gordonek– beren garrantzia izan dute gaurko krisian, baina horiek aipatuz batzuek ihes egiten utzi nahi diote ipuin honetako benetako errudunari. Araugabetzeari alegia”. Gordonek munduko gosetearen oke-

ragotzea alderatu du AEBetan hipoteka ustelekin sortu den krisiarekin. Biak direlakoan ekonomiaren atal nagusietan arauak ezabatu eta merkaturko indarrei, korporazio handiei, eskuak libre utzi izanaren ondorio.

Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak garapenerako kredituak ematekotan planeta osoko gobernuak behartu zituzten nekazaritza babesteko zeuzkaten politikak suntsitzera. Oinarrizko janariaren prezio babestuak pikutara joan ziren 1980-90eko urteetatik aurrera. Edozein herrialdetan edozein nekazarik konpetitu behar zuen urrutitik multinazionalak ekarritako produktuekin. Europa eta Ipar Amerikako nekazaritza industrialak ekoiztutako produktu merkeek hondoratu zituzten geroztik milioika baserri-tar txiki mundu osoan.

Nekazaritzaren liberalizazio edo araugabetzearen beste ondorio larri bat izan da uza erreserbak suntsitzea. Mende luzez uza erreserbek erregulatzen dute munduko elikadura, prezioen gorakadak bezala beheakadak leunduz. Nekazari txikiak arruina-tuta hirietako txabolategietara bidalirik, munduko elikadura korporazio gutxi batzuen kontrolpean geratu zen, eta jendeak larrialdietarako erreserbarik gabe.

Duela bi urtetik honantz, elikagaien mundu mailako egoera berriak topo egin du hipoteken krisiarekin. Zeren eta mundu osoko finantzak krisian

Marta S. Gufstasson argazkilariak sinatzen duen hormairudi hau ez dakigu zein hiritatik dagoen hartuta, baina ederki mamitzen du elikadura-burujabetzaren aldarria: bi neskato artasoro baten ondoan maiza jaten. (Ingelesezt idatzita daukan “slap” horrek besteren artean “zplatekoa” ere esan nahi du, baina “slap-up” triapakada da). Bioerregaiak modan jarritz geroztik sortutako istiluen artean famatua izan da iaz Mexikok ezagutu zuen “taloen gudua”. Baina bioerregaiak zabaldu eta espekulatzailak lehengaietan inbertitzen hasi aurretik, munduko nekazaritza osoa zegoen azpikoz gain eraldatua. Milioika nekazarik utzi dute ofizioa, soro sail handiak daude abandonaturik eta bitartean populazioen kontsumitzeko moduak ere aldatu dira, urrutiko produktu merkeetara ohituta.

murgildu direnean, inbertsiogile askok lehengaietan aurkitu dute beren sosak kokatzeko gune aproposa. Guztia borobiltzeko, petrolio urritzen has-tean bioerregaiak are gehiago handitu dituzte prezioak. “Bioerregaiak –idatzi du Gretchen Gordonek– larriago-tu egin dituzte espekulazioa eta prezio garestiak, baina boom hau ez zen ger-tatuko baldin eta merkatua araugabe-turik egon ez balitz”.

Goseak dirua ematen du

Oraingo goseti-matxinadek eta mundu osoan milioika nekazarik beren produkzioak abandonatu izana frogatzen dute, aditu askoren esanetan, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak azken hiru hamarkadotan bortxaz ezarritako formulak huts egin duela. Aldiz, formula horri esker aberastu diren korporazio erraldoiak sekula baino irabazi handiagoak ari dira lortzen.

The Independent egunkari ingelesean Geoffrey Lean erredaktoreak honako lerroburua ipini dio maiatzeko kronika bati: “Multinazionalak milaka milioitako etekinak lortu dituzte munduan janari krisia handitzen den une berean”. Hona kopuru batzuk: Monsanto aurtego lehen hiruhilekoan iazko irabaziak bikoiztu egin ditu, Cargill-ek %86 handitu, Archer Daniels Midland-ek %42. Ongarrietan munduko handienetakoa den



Mosaik-ek iazko irabaziak halako 12 lortu ditu.

Aldi berean, Janari eta Nekazaritzaren Erakundeak (FAO ingelesezko sigletan) abisatu du 37 herrialde daukela elikagai behar gorrian, eta janik ezak liskarrak eragiten dituela mundu osoan.

Planetako nekazaritzaren eta janariaren jabe egin diren multinazionalen zerrenda Alfredo Jalife-Rahme-k eman du Mexikoko *La Jornada* egunkari ezkertiarrean, "Seis transnacionales controlan granos y cereales" izeneko analisisian. Izan ere, 1980ko hamarkadatik aurrera gobernuak janari erreserbak suntsitzen hasi zirenetik, esku batekin nekazaritza eta bestearekin farmazia kontrolatzen dituzten korporazioak egin dira nagusi.

Hor daude Monsanto, Cargill, Dupont eta Novartis ezagunak. Geroago, *hedge fund* famatuak eta bestelako funtsak ere lehengaietan murgildu dira, eta hiru hamarkadaren ondoren planetako elikagaien kateak ez du ordura arte zenaren antzik.

Cargill, Continental CGC, Archer Daniels Midland (ADM), Louis Dreyfus, André eta Bunge and Born, sei multinazional horiek osatutako *cartela* omen da planetako elikagaien jabe, hasi laboreetatik (gari, arto, olo, sorgo, garagar, zekale...) eta esnekietaraino, barne hartuz okela, olio eta koipe, fruitu, azukre eta espeziak. Sei korporazio nagusioi beste 40 erraldoi gehitu behar zaizkio. Horietan buruzagi direnen zerrendetatik aterata, biren izenak eman ditu Jalife-Rahmek. Bata

filantropo itxurak egiten dituen George Soros, gaur egun Argentinako Pamparen jabe dena, hango lurren erdiak sojatarari bihurtuta. Bigarrena Al-Gore, Clintonekin AEBetako presidenteorde izan ondoren klima aldaketaren arriskuen profeta dabilena, eta idazle honen hitzetan Generation Investment Management korporazioaren sozio eta bioetanola egiten duen beste baten bazkide dena.

Gretchen Gordonek dioenez, konpainia erraldoi horiek komertzioan ari dira, edozein banku ariko litzaitekeen modu bertsuan, baina haien erabakiek munduko barazki, labore eta haragien prezioetan dute eragin zuzena. Beren hautu bakoitzak dauka eragina elikadura sistema osoan.

Mila adituk esana dago, bestalde, hipoteken eta etxegintzaren burbuila lehertu denetik, munduko kapitalek lehengaietara jo dutela, burbuila berria sortuz. Kontua da hipoteken burbuilak eztanda egindakoan jendeak etxea galduko duela, eta aldiz elikadurarena lehertuko denean jendeak gosean pasako duela.

Gordonen ustez elikaduraren garestitzea hasi baino ez da egin. "Burbuilok ia beti lehertu egiten dira. Kontua da elikaduran orain ikusten ari garena burbuilaren beroaldia dela. Gauzak okertzen hasiko direnean, lehengaien prezioak bikoizteraino garestituko dira, hilabete gutxi barru". Eta ondoren, zenbat urte beharko dira munduko nekazaritza birrantolatzeke? ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.

Arriagane - Boroa
Amorebieta (Bizkaia)
Tel / Fax: 94 673 03 76

**MADERAS
IXER
OHOLTZAK S.L.**

TARIMAS - RODAPIES - MOLDURAS
FRISOS - CANES - MOSTRADORES

www.maderasixer.com

UXARTE sagardotegia

Urte osoan aste bukaeratan irekita!

Montorra, 6 - ZORNOTZA - 946 308 815